

Hainbat ekintza antolatu dituzte Liburuaren Eguna ospatzeko

Hainbat liburutegik kalean eskainiko dituzte euren zerbitzuak Kultura Sailak bultzatutako ekimen baten barnean.

Igande honetan (apirilaren 23an) Liburuaren Eguna ospatuko da eta, aitzakia horrekin, hainbat ekintza antolatu dituzte han eta hemen: liburu azokak, literatura tailerrak, liburuak aztertzeo mahai inguruak...

Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzi udalerriko liburutegi publikoek, adibidez, liburuak kalera aterako dituzte Kultura Sailak bultzatu duen *Irakurri* kanpainarekin bat eginez. Irakurtzeko zaletasuna eta liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuak ezagutzera ematea dute helburu.

Amurrio eta Langraitz Oka (Araba); Arrasate, Andoain eta Irun (Gipuzkoa); eta Erandio, Markina-Xemein, Iurreta eta Zalla (Bizkaia) herrietako liburutegiek hartuko dute parte ekimen honetan. Batzuek liburuak plazara aterako dituzte fisikoki; beste batzuek, berriz, dendetara, tabernetara edo osasun-zentroetara eramango dituzte.

Gehienek Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera antolatu dute ekimena; Amurrioren eta Langraitzen, berriz, maiatzaren lehen astean egingo dute.

Hiriburuetan, aldiz, liburu-azokak egingo dituzte. Donostian eta Bilbon ostiralean (apirilaren 21ean) jarriko dituzte postuak liburu-dendek. Gipuzkoa Plazan (Donostian) eta Berastegi kalean (Bilbon) egongo dira. Gasteizen, larunbatean jarriko dute azoka Plaza Berrian.